

BERRI OROKORRAK

2023ko otsailaren 3an 20. zenbakia

2023/2024 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da **otsailaren 13tik 24ra** (biak barne) izango dela **2023-2024 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurre-matrikulatzeko epea**. [Informazio gehiago...](#)

Bihar, otsailak 4, ATE IREKIAK izenez ezagutzen den saioa izango dugu. **Goizeko 11:00etan eraikin gorriaren parean** (Gernika Ibilbidea, 11 zk.) elkartuko gara eta ondoren HH-ko eraikinerako joango gara denok elkarrekin. Bertan, ikastolako funtzionamendua azalduko dugu eta ikastolan zehar ibiliko gara eraikuntza ikusiz (haurrekin etor zaitezke).

Anima zaitezte!



Eskola Kirola: LH 5-6 multikirola aztergai

Denbora bat bada hainbat tokitatik kezka bat jaso izan duguna Usurbilen dugun multikirol ibilbidearen inguruan. Landu berri dugun Plan Estrategikoan ere, gai hori landu beharra jasota geratu zen beste neurri batzuekin batera. Horregatik, hausnarketa ireki nahi dugu ereduaren birformulazioa bideratzeko.

Komunitate guztiaren parte-hartzea garrantzitsua izango da: hezitzaileak, kirol elkarteak, gurasoak zein ikasleak. Horretarako hainbat hitzordu eta parte hartzeko modu aurreikusi ditugu eta parte hartzera animatzen zaituztegu.

Otsailak 22 -- Usurbilgo errealitatea, indarguneak eta ahulguneak lan-saioa

Martxoak 15 -- Proposamen konkretuen lanketa lan-saioa

OHARRAK: Saio guztiak, **Potxoenean** izango dira arratsaldeko **18:30ean**.

Bestalde, LH 5-6ko ikasleen ikuspuntua galdetegi baten bitartez jasotzea aurreikusten da.



Usurbilgo Udala

Xake topaketa

Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegiak, XAKE TOPAKETA bat antolatu du otsailaren 20an (Ihauteri astelehenean), arratsaldeko 5:30etan. Saioa adin guztietarako pertsoneri zuzendua dago, haur, gazte zein heldu; baldintza bakarra, Xakean jolasten jakitea da (bakoitza bere mailan, noski).



LEHEN HEZKUNTZA

Material-kobrantza

2022/23 ikasturteko **LH-ko eskola-materiala** otsailaren 16an kobratuko dela jakinarazten da, **hileko kuotarekin batera**.

Erreziboaren zenbatekoa **35,00 €-koa** izango da.



Irteeren kobrantza

Otsailaren 6an, astelehena, **LH 3**ko familiei **24,20 €** kobratuko zaizkie ikasleek Txuri-Urdinera eta Topic-era egindako irteerengatik.



DBH

Irteera

Otsailaren 9tik 11ra, **DBH4-Frantses** arloko ikasleak **Bordelera** egingo dugu irteera hizkuntza praktikan jartzera.



Irteeren kobrantzak

Gaur otsailak 3, ikasleek egingo dituzten irteeren kobrantza egingo dela jakinarazten da.

- **DBH 1**eko ikasleei, ikasbidaiako aurrerakin gisa, **30 euro** kobratuko zaizkie.
- **DBH 4**ko **frantseseko ikasleei**, Bordelera egingo duten irteeraren aurrerakin gisa, **40 euro** kobratuko zaizkie.

